

begi nagia

O E K D E J O N G



itzulpena:

K a i e t A r r i z a b a l a g a V a n R e m o o r t e r e

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Oek de Jong

Begi nagia

Itzulpena: Kaiet Arrizabalaga Van Remoortere

Honako ipuin-bildumatik itzulia: *Massimoren zeruratzea*, 1993.

Copyright © 1977, 1980 Oek de Jong eta J.M. Meulenhoff bv, Amsterdam

1

Luze nago, egon nagoenez, txirringaren zelaren gainean eserita, bainurako zorroa bizkar gainean zeharka, besoak betoizko itxituraren gainean ezarrita, eta denbora tarte horretan guztian scooter-fabrikako gizonari begira egon naiz; antza denez, tranpolin-jauzian trebatzen ari da.

Jauzi-oholaren ertzean dago gizon gaztea, gorputza beltzaran, bainujantzia soinean, eta ilea bainu-txano marradun zuri-urdin baten azpian bilduta. Garai dago, uretan dabilen jende ugariaren gainetik tente, behatz punten gainean, gauza guztien gainetik ia erabat aske. Abiatzean dago, lekuan bertan jauzi egin du besoak zabal-zabal, pausatu, eta berriz saiatu da. Lauzpabost aldiz makurtu da tranpolina, aldiro makurrago, eta dardarak hartuta gorantz bultzatu du gaztea. Halako batean geldigeldirik dago berriro, zirkinik egin gabe. Ohol estuaren gainean bira egin eta etorritako lekutik itzuli da bere buruaren jabe. Eskuek ezker-eskuin heldu diote tranpolin-dorrearen eskudelari, gorputzaren goi- eta behealdeak angelu zorrotza osatu dute, eta abiatu egin da, lasterka batean zeharkatu du tranpolina, jauzi egin eta igerilekuaren gainetik planeatu du besoak zabal-zabal. Hegaldiaren punturik gorenean –aho zabalik gelditu naiz erabat miretsita– axolagabekeria txundigarri batez begiratu du instant batez sakontasunean barrena...

“Eta hi, hik igerilekura joan besterik ez duk. Horrela, aste guztiotan ez bezala, lagunak ikusiko dituk berriz,” esan dit amak bainujantziaren gainetik soinekoa arin jantzi duen bitartean.

Dijkstra anderea, gure auzokidea, telefonoz hots egiten ari zen oraintxe, eta aurikularrean pare bat hitz oihukatu du, besterik ez. Noski, berehala zer gertatu den jakin nahi izan dut, haren laguna bainaiz: begietara begiratzen diot zuzen, eta nirekin dagoenetan lepondoan jartzen dit eskua.

“Hiri bost axola,” erantzun dit amak zakarki. “Tori lagunak gonbidatzeko dirua, eta ez hadi itzul afalordura arte. Tira, hoa orain.”

Zortzi edo bederatzi bat crawl besakada egin ondoren, igerilekuaren ertzaren gainean jarri ditu eskuak igerilariak, eta bultzada bakar batez altxatu du gorputza bazterrera. Bularrean zein zangoetan ile bustiak bat egin du lerrotxo beltz txirikordatuak osatuz. Inorekin hitz egin gabe ireki du bidea jendartean, berriz ere, tranpolin-dorrerantz. Badakit mailak binaka igoko dituela eskaileran gora, eta plataforman bainu-txanoa buruan tinkoago jantziko duela.

Gainezka dagoen igerilekuak nahasmendua eragin dit. Ez naiz lagunak eta euren azal leuneko gorputz beltzaranak begiz begi ikustera ausartzen. Ezta nahi ere. Horrexegatik nago begira, kanpotik. Baina begiratzeak ez dit oraingoan egoera liluragarrikerik eragin, ez dit ezertan pentsatzeko eta ezer sentitzeko egoerarik eragin. Izan ere, hainbat oroitzapen gailentzen zaizkie etengabe eguerdi zoriontsu haiei, hesiaren zuloetik scooter-fabrikako gizona aztertzen igarotzen nituen eguerdi haiei, zendu zen beste gizon harengan pentsatu eta pozez gainezka igarotzen nituen eguerdiei. Goibel nago eta etsirik, adio egiten denean bezalaxe... Berriz ere, hegaldiaren punturik gorenean igerilari beltzaranak axolagabekeria txundigarri batez begiratu du instant batean

sakontasunean barrena. Zelaren gainean gogorik gabe eseri ondoren, astiro aldendu naiz txirringaren gainean.

Bizi naizen kalean ez dago inor bizirik: igande eguerdia da eta bero itogarria dago. Bere aulki garaian eserita dagoen Bras-en ondotik pasa naiz; bularra, burua eta besoak etxean egindako izozkiak gordetzeko duen hozkailuaren gainean ditu ezarrita, eta izugarri ari da zurrungan. Dijkstra anderearen etxe aurrean gelditu naiz une batez, irrikaz eta jakin-minez begiratu dut barrura; baina landareak argitik babesteko jarritako egunkari-paperen gainetik ez da eskuarekin egindako keinurik azaltzen.

Kalearen amaieran utzi dut txirringa, belarretan, oholez itxita dagoen geltokiaren ondoan. Gogokoen dudan zuhaitzaren kontra jarri dut bizkarra, eta begiak noraezean ibili dira ubide bareetan zehar, hori koloreko uztondoetan barrena, urrutira zero lausoan igeri dauden zuhaitz-saldoetaraino. Ezer ez da mugitzen, ezerk ez du entzun dezaten nahi. Erabateko sosegu hori atsegin izatera ere iritsi naiz. Baina goibel eta etsirik nago berriz ere, adio egiten denean bezalaxe.

Gure etxeko lorategian, kaleko azken etxean, alde batetik bestera nabil ama lotan zetzan koltxonetaraino, bertan erdi lo zegoen telefonoak jo duenean. Batzuetan, goibel nagoenetan, hatz punta batekin ferekatzen dizkit amak ezpainak eta sudur-hegalak, oso leun eta astiro-astiro, bekainak eta betileak ondoren, eta azkenik, sudurraren gain-gainean kezkek sortzen didan begitarteko zimurra baino ez dit laztantzen, erabat desagertu arte. Alde batetik bestera nabil scooter-fabrikaren itzalpean hutsik dagoen koltxonetara iristearren, eta amaren ukiera arina desira dut, betiere haren eskuei darian Nivea-kremaren usainari adi.

“Ederrak hartu behar dituk hik sukalongoko teilatura igotzen bahaiz,” esan du soinekoaren atzealdeko kremlera ixten ari zela. “Teun ez da horratik etxe atzeko lorategira etorriko.”

Baina etsituta nago, eta hura ikusteko sukalongoko teilatura igo naiz eskaileren arrimuan. Teilatu-hodien zinka gori nabari dut eskuetan. Eta tentuz igo naiz lauoinka teilatu zapalera, baina bide erdia egin orduko ikusi dut hura ez dela lorategiko esparruen luzera osoan mugitzen ari, oinak herrestan, xurgatzen ari den arkatz muturtxoa ahoan. Dardara batean hasi zait orduan beheko ezpaina.

Sukalondo freskoan besaulkura igo naiz, eta bertan kuxin handiaren azpian ezkutatu naiz, zorroa amaren Mondriaan-soinekotik ebakia duen kuxinaren azpian. Besarkatu egin dut, bertan hozka egin eta bihotza taupadaka hasi zait atorraren sakelatxoan gordeta ditudan betaurrekoen kontra. Negarraldi handia heldu zait sabelean gora. Ordu batzuk geroago dena amaitu da, eta erokeriak egiten hasi behar dut berriro.

Aita denbora luzerako atzerriko draga-enpresa batean lanean hasi eta egun batzuk igaro ondoren, osaba batek anai-arreba zaharragoak jaso eta oporretara planeagailuak dituen aireportu baten inguruetara eraman ondoren, eta nire mundua oso lauso bilakatu den honetan, Dijkstra anderea azaldu da lehen aldiz gure lorategian. Amak gonbidatu du, bakarrik sentitzen delako nirekin bakarrik etxean. Eta lehen aldiz ondoan eseri zaidanean eta eskua emeki lepondoan jarri didanean, zorigaiztokoa dela jakin badakit, eta ez naiz segundo batez ere begietara begiratzera ausartu.

Auzo osoan zuen Dijkstra andereak zorigaiztoko izatearen entzutea. Jendeak asaldatu antzean agurtzen zuen kalean, burua makurtzean egiten zioten keinuak bazuen beti adore eman nahiaren itxuratik, eta hari buruz hitz egiten zutenean marmar batean hitz egiten zuten nahi gabe. Bakarrik bizi zen, eta seme heldua zuen: Teun. Larunbat goiz batzuetan etortzen zen hirira autobusa hartuta, ilea orrazturik eta erdi bustita, soinean traje iluna zuela, ezkontza edo hileta batera joango balitz bezala. Dijkstra anderea joaten zen haren bila. Neskatila itxurako gorputza luzatu eta ezpainetan musukatzen zuen agur gisa Dijkstra andereak. Ondoren, eskutik heldu eta berekin eramaten zuen. Teunek ezer axola ez balitzaio bezala begiratzen zuen ingurura, amak aurrera begiratzen zuen zuzen-zuzen, eta jendeak aztoraturik agurtzen zituen. Etxean ohiko galtza batzuk eta atorra koloretsua janzten uzten zion Teuni, eta ilea beste modu batean orrazten zion, ez hain era zaharkituan. Teunek ez zion inoiz inori ezer esaten. Amari bakarrik egiten zion oihu noizean behin, oso gogor. Korridoreko paretatik barrena entzuna bainuen inoiz.

Lepondoa ukitu dit beraz, berak ere opor osoak semearekin bakarrik pasatuko dituela esan dio amari, eta oso luze hitz egin du. Egundak batzuk geroago, erabat bestelakoa da bigarren topaketa. Ilunabarretik atera da gau batez lorategiko atletik gure atzeko gelara, dardarka, eskuak aurpegian. Minutu luzez ezin izan du ezertxo ere adierazi, geldidagelarik eta nahasirik dago gelan. Ondoren, hatz batez besoko orban gorriak erakutsi ditu, eta motel zer edo zer esan du semeari buruz. Auzokidea besarkatu du amak, eta aulki batean eserarazi du astiro. Baso bat koñak eman dio. Dijkstra andereak behingoa hustu du edalontzia, eta ahots erlatsez gertaera haren berri ez duela emango esan du ahapeka, ez diotelako etxera etortzen utziko bestela, eta orduan ahoa zabal-zabal negar batean hasi da. Ordurako, Dijkstra jaunaren amaiera beldurgarriaren jakinaren gainean nago: aitak kontatu dit, agurtzea zertxobait leuntzearen. Baina honako hau: aho zabal-zabala, kokotsaren azpiko malkoak –horrek ebatzi egin du. Hain da zorigaiztoko, maitatu beharrean sentitzen bainaiz. Ondorengo asteetan ia egunero etorri da Dijkstra anderea tartetxo batez niregana lorategira bisita egitera. Ondoa jarri zait kukubilko, eta eskua ipini dit lepondoan. Lehenengo egunetan scooter-fabrikako hizki zuriak berriro irakurtzeko gauza ote naizen galdetu dit etengabe. Ezin ditut inondik

inora ikusi, baina ez diot hutsik egin nahi. Urteak dira fabrikako hizki zuriak buruz dakizkidala, eta, hortaz, bakoitzean letra batzuk baino ez dizkiot irakurtzen, aldiro akats gutxiago eginez, horrela begi nagia hobetzearekin atsegin har dezake. Galdera egin ondoren, zigarreta eramaten du ahora, eta pizgailuaz sua itsasten uzten dit. Ondoren, egunero, ikusi ditudan gauzen inguruko deskribapen xeheak entzuten ditu patxadaz, eta barre egin beharrean dago egiten dizkiodan galderekin, dela semeari buruzko galderekin, dela etxearen barrualdeari buruz egiten dizkiodanekin, dela nylonezko galtzerdiei buruzkoekin, edota esmaltez margotuta dituen behatzetako azazkalei buruzkoekin. Denboraren poderioz hain nau gustuko, ezen semearen irratitxoa uzten baitit. Sukalondoraino iristen den luzagarria jarri eta musika-hotsa entzun daiteke gaurgero bisita egitera datorkidanean. Alde egiten duen bezain laster, ordea, irratitxoa itzali egiten dut berriro ere. Ingurua ahalik eta isilen behar dut. Batzuetan, tartetxo batez irratitxoa hartzen dut altzoan, semearena delako.

Kalenberg du okulistak izena. Aurpegi grisa eta esku grisak ditu, eta inork ez daki zergatik. Bera da esparatrapu zati handiekin haragi-koloreko tiritak eskuineko begiaren aurrean itsatsi didana. Aurrea, ordea, parez pare jasotako hatz erakusle grisari jarraitu behar izan diot, ezkerretik eskuinera eta atzera berriz kontrako norabidean, nondik norainoko begi-okerra naizen ikus zezan. Negarrez hasiko naizen beldur da ama, eta Kalenberg okulistari egindako bisitaren ondoren, negar-malkoekin tiritak askatuko dudala saihestearren eraman nau ahalik eta lasterren jostailu-denda batera.

“Zer jostailu duk maiteen, Tommy?”, galdetu du makurtuta, parez pare. “Nahi duana aukeratu.” Ez dudala ezer nahi esan dut ahapeka, baina saltzaileak eta amak inguruan ditudan jostailuen kopuruak txunditu egin nauela pentsatzen dute, eta ez diote ukoari inolako jaramonik egin. Saltzaileak gogotsu igo eta jaitsi ditu dendako eskailerak, arasak zabaldu ditu, biltegitik kutzak ekarri ditu, zabaldu egin ditu, eta gero berriz ere bildu. Amak aurrez aurre erakutsi dizkit gauzak, begiaren parean, eta eskuetan utzi dizkit eskuka ditzadan, baina ezer ez dudala nahi esaten tematu naiz. Bat-batean, hain gaizki ikusten dudan honetan, dena niregandik oso urrun dagoela iruditzen zait, eta badirudi gertatzen ari denarekin ez dudala ia zerikusirik. Saltzaileak jostailuak inguruan gero eta gogo gutxiagorekin pilatzen dizkidan bitartean, eta amak txikiegi daukadan cowboy-jantzia tiraldi urduriekin janzten didan honetan, pixkanaka jabetzen hasi naiz bereiz bizi den mundu txiki bat naizela eta hortik at daudela pertsona eta gauza guztiak.

Hiru ordu laurden geroago nekez jarrai diezaioket amaren ibilera haserreari. Soka atxiki dut eskuan, eta ni baino lau metro atzerago iraulki-kamioi erraldoia daramat herrestan, zabuka ari da

espaloiaren alde batetik bestera, ondotik igarotzen ari diren oinezkoen berna-hezurrei kolpeka. Kamioiaren ondoan eseri nau amak etxeko lorategian, scooter-fabrikaren itzalpean, eta aste luzez nago lorategiaren bazter horretan ia egun osoan, itzaletara lerratzen naiz, eta arratsalde erdialdean, eguzkiaren argiak harrapatzen nauenean, lastozko kapela janzen dut.

Anaia eta arreba, Eddy eta Linde, planeagailuen aireratzeei eta lurreratzeei so daude hemendik oso urrun. Lagunek ez didate gehiago bisitarik egiten, bekokian egindako urratu itzel bati esker erakutsi baitiet ia erabat itsu nagoela eta ez naizela ezer egiteko gai. Jada ez dago borrokatu beharreko inor, ez naiz gehiago estutua sentitzen, eta konturatu naiz atsegin dudala zernahiri begira egotea zirkinik ere egin gabe. Astean zehar, arratsaldeko bostak aldera, hesiaren atzean makurtzen naiz laguna-edo dudana ikertzeko, masailaren eta tiritaren artean handituz joan zaidan zirrikituaren zehar –buruari atzeraka norabide zehatz batean eusten badiot, dena ikusten dut. Sirenak jo eta zenbait minututara ateratzen da gizona fabrikako atetik –nire munduaren galbidea hasi baino zenbait ordu lehenago tranpolin-jauzilari gisa ezagutuko dudan gizona. Txirringa darama zirritu-zelatik helduta, eskolarako zorro zaharra galtzarbean. Ez da zinez ezer apartekorik gertatzen, baina liluraturik nauka hesitik gertu geldirik nola dagoen ikusteak; txirringa sabelaren kontra jarri, eskolarako zorroa ireki, zorroaren estalkia barraren gainetik eman eta zorroa berriro nola ixten duen ikusteak. Atorraren goiko aldeko hiru botoiak nola askatzen dituen ikusteak –bular beltzarana ikusten diot– ; bi eskuekin eskulekuari heldu, kokagunerik altuenean dagoen zelaren gainetik hanka luzea eman eta bertan nola esertzen den ikusteak. Beste gizon baten zain dagoela, zapata astunen puntak lurraren gain nola ezartzen dituen ikusteak. Eraman ohi dituen praka motzegiek beti agerian uzten dituzten zangoak ikusteak. Haren arnasa apur bat erlastua entzuteak, eta betiere zerbait berria antzemateak –sarritan listua irentsi beharrean dagoela, adibidez; listuak eragotzi egiten diolako.

Gizonak ez nau ezagutzen, nire existentziaren berri ere ez dauka, hala ere, nire laguna-edo badela iruditzen zait. Izan ere, batzuetan, atzeko lorategian Dijkstra anderea etzalekuan etzanda dagoenetan, lan-jantzi urdina soinean duela leiho batera atera eta dei egiten dio Dijkstra andereari. Entzungor egiten dio lehenik, baina berriro dei egiten dionean, erantzun egiten dio, erronka joaz eta alai. Gizonak irri-imintzinoa egin eta ahots erlastuaz zerbait oihukatzen dio bueltan; orduan, bat-batean, Dijkstra anderearen barre zoragarria entzuten da, txori miresgarriak agertu izan balira bezala.

Nik neuk sukalongoan eragin diot lehenengo aldiz barre hori. Gu baino ez gaude bertan, Dijkstra anderea eta biok, ama kalera joana baita. Berehala heldu diot berriz ere duela bi egun etendako elkarrizketaren hariari, eta arratoitxo urdinxkari buruz kontaktzen jarraitu dut, berebiziko garrantzia

hartu baitu nire bizitzan, nik neuk aurkitu dudala esateko besterik ez bada ere –arreba eta anaia bertan egon izan balira, ez nuen sekula aurkituko. Dijkstra andreak nire ipuinaren bide kiribilak jarraitu ditu eramankor eta arreta handiz, baina bat-batean, arnasaldi batean, eten egin dit berriketa. “Tommy, badakik zerk eman didan atentzioa hamaikagarren aldiz?”.

“E?” marmarikatu dut aztoraturik.

“Etengabe oinei begira hagokidala hitz egiten didaanean. Nolatan hori?”.

Bizkarra eman diot ikaratuta, eta ur-putzuaren ertzari heldu diot tinko. Instant batean haren aurpegia azaldu zait parez pare, eta begira gelditu zait. Begia hetsi dut nahasmenduak jota.

“Aizak, kakati.”

Tentu handiz bi atzamar sartu dizkit betaurrekoen atzean, begi bakarraren gainean jarri dizkit, eta arretaz jaso dit betazala. Eta orduan ikusi dizkiot begiak lehen aldiz. Grisak dira, bareak eta kolore gris distiratsudunak. Une batez baino ez naiz begiratzera ausartu, berehala nago, ordea, berriz ere haren behatzetako atzazalei so.

“Nolatan hori,” galdetu dit berriz ere.

“Zuri begira luze banago, begiak malkotan hasiko zaizkidalako.”

“Zergatik ba?”

“Dijkstra jaunarekin zer gertatu den badakidalako,” marmartu dut, entzunezin.

Baina entzun egin du.

“Dijkstra jaunarekin zer gertatu den badakialako,” errepikatu du pentsakor.

Haren bekokia zimurtu egin da, eta begiratu didanean, altxatuta neukan begirada zalantzatiak ihes egin du, berriz ere, arrapaladan beherantz. Zeri buruz ari naizen ulertu du orduan, eta sukalondoan oihartzun egin du haren barreak, txori miresgarriz osatutako kolonia oso batek ahotik ihes egin balio bezala. Behatzak –begiak bezain apartak, halakoxea baita guztia harengan– gorantz kizkurto dira alai. Eta etorri diren bidetik desagertu dira txoriak.

“Baina hori guztia duela aspaldi gertatutakoa duk, motel.”

“Oraintxe jakin dut.”

Hortxe dira berriz ere txori horiek, sukalondoan, bizpahiru bat besterik ez oraingoan.

“Eta ikusten zaitudan bakoitzean,” jarraitu dut, “Dijkstra jaunarekin gogoratzen naiz, eta zeure zoritxarrekin.”

“Nola dakik zoritxarrekoa naizela? Bada...”

Nor eta, noski, ama sartu da une horretan sukalondoan, besoak egunkari paperean bildutako barazkiekin erabat zamatuta. Une labur batez Dijkstra andreak buruak niregandik oso gertu jarraitu du, eta oso harro nago elkarri begiratu diogunean, lehen aldiz begiratu baitiogu elkarri konplizitate bila.

Amak ez du ulertzen zergatik egoten naizen egun osoan lorategian, belar-puntak esku-ahurrekin ferekatzen; edota zergatik egoten naizen geltokiaren atzeko paisaiari begira, neure baitan gune zorabiagarri horretan zehar hegan egiten eta sekula ikusi ez ditudan gauzak ikusten. Ezertxo ere ez dudala egiten pentsatzen du, lehen baino askoz ere zeregin gehiago burutzen eta bizitzen jardun dudanean.

“Egonean txapeldun, to!” oihukatzen du batzuetan trufati. “Egin ezak zerbait behingoz! Beste pixka bat eta ez duk gehiago ibiltzen jakingo eta.”

Horrek, bestalde, gero eta gutxiago beldurtzen nau: gehiago ibiltzen ez jakiteak.

“Zer egin ahal dut bada,” galdetzen diot, atsegin har dezan.

“Egin iezadak ba erosketaren bat edo.”

Altxatzen naizenean, zangoak inurrituta edukitzen ditut. Itsu baten gisara joaten naiz herrestan Bras-en dendara, denak beldurtzeko maneran. Zorroa erosketez mukuru betetzen dit, eta gupidatu egiten da nirekin, auzoko denek Dijkstra anderearekin duten gupida likatsu berarekin. Zorroa beteta dagoen bakoitzean, eskuaz jotzen du Bras-ek kopeta, etsi antzean, aitaren lantokia gogora ekarri eta kaiaren izena ahazteko itxurak egiten ditu berriro ere. Orduan, berriz esan behar izaten dut lekuaren izen exotikoa, eta berriz naiz aski bizkorra, eta berriz egiten dit tinko atximurka masailean, eta berriz ere eskukada bat merengezko opiltxo oparitzen dit, urtetan eta urtetan auzoko ume batek berak ere jan ez dituen horietakoak.

Erosketak eman eta sukaldora lerratu naiz nire aurkikuntzari arreta osoa eskaintzera. Ur-putzuaren burdinazko estalki herdoilduari heldu diot irmo, eta indarrak bildu ditut. Une batez betoizko ertza harramazkatu du estalkiaren burdinak, eta gero isilik dago dena berriz. Ahuspez makurtu eta tiritaren azpian dagoen zirrikitutik begira nago ur-putzuaren iluntasunean barrena. Hasieran ez dut ezer ikusi, denboralditxo baten ondoren, ordea, uraren gainazaletik hurbilen dagoen ertzean zer edo zer antzeman dut, urdinxka da, eta bi puntutxo dirdiratsu ditu. Banan-banan eskutik labaintzen utzi ditut merengezko opiltxoak, eta plisti-plastaka erori dira uretara.

“Tori... Zure janaria,” esan diot adeitsu ahapeka.

Baina arratoitxoa ez da mugitu. Merengezko opiltxoak ur gainean igeri daude zuri eta geldi. Burua zintzilik daukat ur-putzuan behera, ur geldiarene eta betoi hotzaren aire umela usaindu, neure buruaren arnasa entzun eta etenik gabe begiratu diogu elkarki arratoitxoak eta biok, Dijkstra anderearen bi katu errusiarrek bezala. Burua hustu egin zait, ez dut ezertan pentsatu, ez dut ezertxo ere sentitu, begira baino ez nago.

Batzuetan ordubete baino gehiago igarotzen da estalkia berriz zuloaren gainean jarri eta... Uretan plast entzuten dudanerako, eta pulunpak, halakoetan berriro ere, arratoia benetan existitzen dela frogatzen dit.

Zirkinik egin gabe egoten naiz arnasa erlastua duen gizonari begira, arratoitxoari eta semeari. Eguerdiro egoten da hura Dijkstra anderearen etxe atzeko lorategian, eta, ama oheratu bezain laster, sukaldondoko teilatu zapalera igotzen naiz. Sabelaren gainean labaintzen naiz teilatuaren beste alderantz, eta Teun-en bizkarrari, batzuetan sorbaldak une batez mugitzeko duen erari, antzematen diot nire presentziaz ohartua dela. Handik gutxira itzuli egiten da atzerantz begiratzeko. Ez dugu ezer esaten. Hari keinu eginez altxatzen dut eskua zeremoniatsu, indiar batek bezala: eskua buruaren ondoan, erabat zabaldua, esku-ahurra aurrera begira. Nire agurra bukatu arte egoten da zain, eta zenbatzen jarraitzen du gero.

Zenbatzea du gustuko. Lorategian zenbat lore urdin eta gorri loratzen diren jakin nahi du zehazki, zenbat baia dauden zuhaixketatik zintzilik, lorategiko lore-sailen bazterrean zenbat adreilu ezarri dituzten lurtean zeharka, zenbat leiho dituen fabrikak. Zer edo zer zenbatu duenean, arkatz-muturtxo bustitzen du mihiaz, eta bizpahiru hitzekin batera zenbatekoa idazten du liburutxo berezi batean. Mugimendu guztiak ezagutzen ditut; bai Teun-enak, bai beste gizonaren zain egoten den gizonarenak, eta horrek lasaitasun- zein ziurtasun-sentimendua eragiten dit.

Noiz edo noiz semeak ez du ezertxo ere egiten. Halakoetan belarretan egoten da ahoz gora etzanda, bainujantzi zuri marraduna soinean, marratxo gorria saiheska duena, eta, bertatik edan gabe, baso bat gaseosa eskuan. Etengabe zabaldu eta hesten ditu behatzak, sabel zapalak gora eta behera egiten du emeki, igel baten zintzurak bezala, eta adi-adi egoten da zeruari eta hodeiei begira. Halakoetan ezin izaten dut irudikatu batzuetan amari oihu egin eta ama jotzen duenik.

Eguerdi batez sukaldondopera etorri da zenbaketa egin ondoren. Liburutxo berezia zabaldu, oin-puntetan zutitu, besoak luzatu eta zenbakien lerrokadak, hitzak eta kalkuluak erakuste aldera, buruaren gainetik atxiki du liburutxo. Zirrikitutik aztertu ditut lerroz beteta dauden orriak, eta lili gorrien zenbatekoari lili urdinena kendu diela ohartu naiz, baiak fabrikako leihoekin biderkatu dituela...

Lorategi osoa zenbakien mundu zirrargarri eta zorrotz baten pean du sailkatua.

Estatua baten gisan hala dagoen bitartean, berotasuna nabaritzen hasi naiz bularraldean, eta berotasunak barnea hartu dit pixkanaka. Kalkulu guztiak ikusi dizkiodanean, ez bat eta ez bi, neure burua labaintzen utzi dut bat-batean teilatutik lorategira, eta Teun-ekin hasi naiz solasean. Ezkerreko begia nagia dela kontatu diot, egiatan eskuinekoak hartu behar duela bere gain lan guztia,

eta ezkerrekoak ere lan pixka bat egin dezan eta indartu dadin itxi didala Kalenberg-ek begia. Begi nagiaz fidatzen naizenean, gauzei heldu ahal izateko bost zentimetro eskuinetara egin behar dudala erakutsi diot. Zirrikitua aitortu diot, eta konfiantza osoan kontatu diot amak ia erabat itsu naizen ustean jarrai dezan noiz edo noiz edalontziak mahaitik bota edo kontu handiz jotzen dudala bazterren bat. Semeak arkatx txikia xurgatu eta niri begira dago, hala ere, ziur nago ez didala entzuten, eta areago miresten dut horregatik.

Goiz batez –ez dakit artean zenbat egun dohatsu igaro ote diren– berriro ere zer edo zer egin behar dut amak hala eskatuta, lagundu egin behar dut sukalondoan. Tantaka ari den lixiba bihurritu du amak xukagailuan, nik jaso egin ditut gauza zuri horiek, eta gauza hori biribil batera bota ditut, lixiba-saskira, alegia. Aspergarria da lana, eta neure baitan fabrikako gizonak fabrikara eraman eta scooter bat nola muntatzen den erakusten didala irudikatu dut. Oso urrutitik soinu latza barrendu da bat-batean neure baitara, amak mukiak xurgatzean egiten duena.

“Ez zara marrantatua egongo,” galdetu diot, mesfidati.

Ez dit erantzun, baina hain jira eta bira amorratuan eragin dio xukagailuaren kirtenari, ezen xukagailua kulunkan eta aieneka hasi baita.

“Zer duzu, ama?”.

Lixiba-saskia altxatu, aldaka gainean jarri eta lorategian barrena abiatu da. Jarraitu egin diot, oso urduri oraingoan, eta lau ertzeko arropa-esekigailu garaiaeren erdira iritsi naiz zertxobait baldarki. Hain gustuko dudan hezetan-usain freskoa usainkatu, zirrikitutik ama kirikatu eta, behin edo beste, matxarda bat jarri eta hurrengo jarri artean, esku gorritua masailalboetatik nola pasatu duen ikusi dut. Ikarak hartu nau, eta gordeta ditudan izu-ikarak haizatu egin dira beren ezkutalekuetatik. Arropa-esekigailuaren azpitik atera naiz herrestaka, eta haren gerria besarkatu dut, eta burua estutu dut haren sabelaren kontra.

“Niregatik ari al zara negarrez?”.

“Ez ba, nolatan bururatu zaik halakorik,” esan du, astiro eta ozen, ahotsa dardara ez dakion.

Baina segur naiz niregatik egiten duela negar. Nik uste higuigarria begitantzen zaiola nirekin bakarrik egotea, gogaikarri natzaio, eta itsusia naizela pentsatzen du. Noski, tirit horrekin izugarri itsusi nagoela iruditzen zaio, eta nitaz lotsatu egiten da, hori besterik ezin da izan.

“Neuregatik ari zara negarrez, ba!” oihukatu dut.

“Ez, Tommy... Utz nazak bakean...”

“Segur ezetz?”.

“Ezetz ba, benetan.”

“Zin egiten didazu?”.

Bi hatz jarri ditu ezpainen kontra, bien artetik listua bota du lurrera, eta airean altxatu ditu gero, nik erakutsi bezala.

“Zin egiten diat,” esan du, eta tentuz askatu dizkit besoak.

Baina zinak berak ere ez nau konbentzitu. Eguerdian, ondoan eserita Dijkstra anderea dudala, irratitxoa beste batzuetan baino ozenago jarri eta barrena hustu dut.

“Niregatik egin du ba negar,” ebatzi dut.

Baina berak ere ezeztatu egin dit, eta ni lasaitzen saiatu da, esan dit aitagatik egin duela negar; etxetik kanpo dagoelako hain denbora luzean.

“Hire amak aitaren hutsunea sentitzen dik. Ez dik luzaroan bakarrik egotea jasaten. Ulertzen? Horixe baino ez duk.”

Buruaz baietsi, erdi konbentziturua baino ez, eta gogoeta egin dut.

“Eta zu orduan,” esan diot bat-batean.

“Zer esan nahi duk?”.

“Zeu ere bakarrik bizi zara, ezta?”.

Haren zoritxarrak pentsaketarako arrazoi izaten jarraitzen du.

“Jainkoarren! Hasi al haiz berriz ere? Entzun...”

Zoritxarrekoa zergatik ez den azaldu dit, baina doi-doi baino ez diot aditu: zoritxarrekoa izan dadila desira dut, azken finean, hori baita onena. Eta azkenik, isildu denerako, oso urrutira besteratu zaizkit pentsamenduak.

“Katu izan nahi nuke,” aitortu diot, eta bihotzaren barne-barnetik jalgi zait hori.

“Katu bat? Hara, batek zakik katu bilakatuko ote haizen halako batean. Horretarako gaitasuna baduk, nik uste.”

Katu errusiar zalu bihurtu naizela imajinatu dut neure baitan orduan, eta sukalondoko teilatutik haren sorbaldaren gainera jauzi nola egiten dudan eta ondoren burua nola laztantzen didan irudikatzen saiatu naiz ahalik eta zehatzen.

Hurrengo egunean iraulki-kamioi erraldoiarekin jostatu naiz. Harrabots handia ateraz eraman dut lorategi osoan zehar alde batetik bestera, amak atsegin har dezan. Alabaina, hainbat ordu geroago, berriz ere, zinez gustukoa dudan autotxoarekin baino ez naiz jostatu: hatz txikiaren tamainako kamioia atoiarekin, Hakkebord & Spriensma izendatu dudana. Belarretan ipini dut kamioia, oihan berdean, neure burua lurraren kontra ezarri eta, ukitu ere egin gabe, kabina gorriari begira nago, bertan nago ni bolantea manciatzen. Baina horra non ama etorri eta behingoan ibiltzen utzi behar diodala esaten didan, eta autotxoa haztatzen hasi da motor-hots moduko batzuk egin bitartean.

Aspalditik ibiltzen dela baina berak ezin duela ikusi oihukatu diot nik. Eta negarrez hasi behar dut horregatik.

“Berorrek nahi duen bezala,” esan du erretxinduta.

Bakean utzi nau. Gorabehera hori gertatu denetik bakean utzi nau gero eta maizago. Gero eta axolagabeagoak dira gauero elkarri ematen dizkiogun musuak, gero eta iheskorragoak. Batzuetan gau horretan txirringaren zorroan estu-estu sartuko nauen beldur izaten naiz lokartu baino zertxobait lehenago, belaze baten erdian nonbait dagoen ubide batera botako nauen beldur, duela urtebete behin esan zuen bezala.

Baina hala eta guztiz ere zoriontsu naiz. Bai baitakit aparte bizi den mundu txiki bat naizela. Badut Dijkstra anderea zernahi ere galdegiteko. Baditut Teun, fabrikako gizona, arratoitxoa eta zuhaitz gogokoenetik haratago beha egoteko paisaia. Eta amets egiteko, Dijkstra jauna.

Ia egunero etzaten naiz bizkarraren gainean begiak itxita, eskuak buruaren atzean, eta aitaren esaldi idorretatik, gogoz kontra esandakoetatik, hazi den istorioa irudikatzen dut neure baitan.

Hiru bagoi daraman tren-makina ikusi ahal dut, eguerdi batez belazeen zehar dabilena. Behiek zuhaitz-saldoen itzalpean hausnartu egiten dute. Zaldiak albo baten gainean daude etzanda belarretan, hankak luze-luze, eta isatsa astintzen dute saihets dardartietatik euliak uxatzeko. Zeruertzean, aire lausoan, herri osoak gelditu dira igeri, horrenbesteko beroa egiten du. Jarraian Dijkstra jauna ikusi dut, konpartimentu batean bakarrik. Zurezko banku baten gainean dago eserita, izkinan zintzilikatu duen jakaren kontra du burua, eta oinak aurrean duen bankuaren gainean, gerrako argazkiak dakartzan egunkariaren gainean. Honezkero entzun egiten da burrunba, baina Dijkstra jaunak ez du arretarik jarri: logalea eman dio beroak, eta semetxoaren argazkia du gogoan, diru-zorroan gordea duena. Bertan ardi-larru baten gainean dago umetxoa, biluzik sabelaren gainean etzanda, itsasotik herrestan lehorreratutako animalia baten gisan. Burrunba gero eta ozenagoa da, eta azkenik, Dijkstra jaunak erdizka ireki ditu begiak, eta kanpora begiratu du. Une horretan bertan hasi dira txinpartak botatzen galgatutako trenaren gurrupilak. Dirdira egiten ikusi ditu hegazkinak. Altuera baxuan ari dira hegan, oso baxuan. Eta orduan... Orduan gertatutakoa geroxeagorako uzten dut beti, ahalik eta luzeen iraun behar baitu istorioak. Lehenik, oinak banku gainetik motel altxatzen utziko diot Dijkstra jaunari, bankuaren azpian dauden zapatetan sartzen, eta behatzez beregana hurbiltzen. Makurtu egiten da, eta bi hatz erabiltzen ditu adar gisa zapatak estuki janzteko. Oraindik ere argazkian pentsatzen ari da eskuak leiho-laukiaren gainean ipini –ez dago ulertuko duenik– eta logaleak jota erasotzera gainera datozkien hegazkinei

begiratzeko dienean, eta oraindik ere gora begira dago zarata errepikakorra entzun denean, harri-txingorrek bagoien gainean durundi egin izan balute bezala.

Eta orduan? Begien bistatik galdu dira hegazkinak. Trena gelditu egin da zelaien erdian. Isiltasuna da nagusi. Lokomotorrak txistu emeki nola jo duen entzun ahal duzu. Bidaariak daude leihatiletan, eta bero handiak moteldu dizkien ahotsak entzun ahal dituzu, baita burdinbideko harri txintzarretan tren-gidariaren eta txartel-zulatzailearen urrats geldiak ere. Trenaren luzera osoan ari dira zer edo zer matxuratuta dagoen ikusten. Itzuli egin dira azken bagoiraino iritsi ondoren: ez dute ezer berezirik ikusi. Itzultzean baino ez dute Dijkstra jauna topatu, leihatilatik esekirik molde behartu samarrean.

Berriz ere hasi da trena ibiltzen. Bidaia guztiak joan dira Dijkstra jaunaren konpartimentura. Zortzi baino ez dira, trena helmugara iristear baitago: gerora oholez itxiko duten geltokira. Baten batek Dijkstra jaunaren eskuak zabarki askatu ditu leihoaren markotik, bankuaren gainean eseri – hilotzei ezin baitzaie esertzeko eskatu– eta askaturik zituen oinetakoen lokarriak lotu ditu. Bidaariak isildu egin dira, oinen azpian zuen egunkaria astinduz freskatu dituzte beren buruak, edota beren kapelekin, eta zigarretak eskaini dizkiote elkarri.

Begiak busti zaizkit. Izugarria da Dijkstra jaunari gertatu zaiona. Baina, aldi berean, liluragarria ere bada. Egia esan sekulakoa begitantzen zait haren zoritxarra, inori aitortzeko ausardiarik ez dudan arren. Egunero bizi nahi dudan liluramendua da.

Itzal freskoan etzanda segitu dut. Malkoak lehortu egin zaizkit, eta Dijkstra jaunaren irudia, zurezko bankuaren gainean etzandako gorpua, lurrundu; hala ere, neure inguruko gauzengandik desitsatsi nau istorioak. Kaleko eta fabrikako hotsak ez dira gehiago neure baitara heltzen. Gogoetak galdu egin zaizkit, eta bistatik ezkutatu. Bakarrik eta babestua sentitzen naiz, dagoeneko ez zait neure baitakoa ez den ezer axola, gero eta arinagoa naiz, finean, igeri bizi naiz zoriontasunean.

Hondamenezko ostiral eguerdia iritsi da orduan, zeinetan lelotuta nagoen eta puztutako krokodilotxoak heltzen dudan besoak luze. Kalenberg gerturatu zait bere esku grisekin, zurrunduta dudan gorputza altxatu du bere belaunaren gainean jartzeko, eta erpuru eta hatz erakuslearekin esparatrapu zatiei atximurka hasi zaie. Arnasa hartzen nabari dut belarriaren ondoan, oraindik ere espasmodikoki heltzen ari naizen krokodilotxoaz bizi-bizi mintzatzen den bitartean.

“Ba al zenekien zuen aitak lan egiten duen herrian ere krokodiloak dituztela? Hau baino askoz ere handiagoak noski...”

Bat-batean tiraldi gogor bat, azalaren zati bat erauziko balidate bezala. Argi itsugarri batek ziztatu nau eskuineko begian, bihotzak bularraldearen kontra jauzi egin eta saihets-hezurren kontra jo du

etsi-etsian, urduri nago adi Kalenberg-ek oina herrestan eraman eta pedaldun zaborrontzia zabaltzen duenean, tiritaren kraskatzea, metalaren oihartzun nahasezina estalkia ixtean.

“Kito,” hots egin du, eta besakada handi batez utzi nau lurrean. “Orain ohi bezala jostatu ahalko zara beste mutikoekin.”

Orduan baino ez zaizkit malkoak isurtzen hasi. Eskuen artetik irristatu zait krokodilotxo. Ama berehala gerturatu zait, esku batez piztia jaso eta besteaz beregana hurbildu nau, eta askatutako begia musukatu dit, pentsatuz negarrez ari naizela bekaineko ileak tiritan itsatsita geratu zaizkidalako.

Hirian barrena eraman nau, ez bainaiz bertan aste luzez egon. Terraza batean sorbete bat hartzera gonbidatu nau, dagoenik eta sorbeterik handiena eta goxoena. Baina ez dut bertatik mokadurik txikiena ere jan, izozki-koilaratxoaren kirtena okertu besterik ez dut egin. Begietara min ematen dit munduak. Klaxona joka ari diren autoak, erakusleiho islatzaileak, bainujantziz jantzitako manikiak, ate birakariak, itzalkinak, jendea mahaietan eserita, arropa koloretsuz jantzitako ehunaka pertsona dabilkit inguruan jira eta bira. Eta neu nago erdi-erdian, berriz ere parte hartu beharrean. Ororen gainetik amaren ahots alaia entzuten da, oporrak amaitu baino lehen egin beharko nituzkeen gauza alai berriei buruz ari zait etengabe gogoetan. Daukadan txunditu aurpegiari barre egiten dio, eta esne-gain irabiatua igurtzi dit hertsiki estututako ezpainetan.

“Oraindik ere negarrez ari al haiz, Tommy?,” esan du ozen. “Ez al duk ba dena amaitu?”.

Bai, halaxe da, dena amaitu da: dagoeneko azken aste dohatsuak itzaltzen ari dira argi itsugarriaren eraginez. Hemendik aurrera etorriko denari buruz baino ez dut pentsatzen: igande gauean itzuliko diren Eddy eta Linde-ri buruz; eskolako jolastokian lau-begi naizela iraintzen nauten ahotsei buruz; bainurako zorroa bizkar gainean zeharka daramaten judo-mutilei buruz, neguko gau hotzetan gimnasioko sarrerara iristeko lehia estuan. Eta denetan okerreana honako hau dela pentsatzen dut: berriz ere eroarena egin beharko dudala neure burua zutik atxikitzeko. Begiak hertsiki ditut mundua berriz ez ikusteko, eta eskuez estali ditut, baina eskuak paretik kentzen saiatu da ama, irabiatutako esne-gainez beteriko ezpainei karkaraka, kilimatu egin nau eta erpuruaz kezkatzen naizenean sortzen zaidan zimurra laztandu dit.

“Tira, Tommy. Utz itzak hire haurkeriak.”

Baina eskuak kautxuzko bi estalki balira bezala itsatsi zaizkit. Eskuaz mahaiaren gainean jo du orduan suminduta, eta sorbetea jaten hasi da mokadu handiak hartuz.

Bat-batean –ez dakit zenbat denbora egon ote naizen besaulkian etzanda, Mondriaan-en kuxina besoen artean, bertan kosk egiten, lur jota erabat, adore-gramotxorik batere gabe–, eta bat-batean, eguzkiaren argi-lorratza sartu da sukalondoan, eta horren gainetik Dijkstra anderea hurbildu zait, ibilera arinez.

“Aizak, Tommy. Banekian bai, hementxe egongo hintzela. Ez al nauk dei egiten entzun?”.

Aurrean daukat, eskuak aldaketan. Xukagailuari so egin diot begiak arranpalo, negarraldia heldu zait sabelean gora eta listua irentsi dut gogorki, negarra gibelatzeko.

“To, zer duk?”.

“Deus ez,” arranguratu naiz.

“Deus ez? Zergatik hago ba orduan muturtuta. Begira iezadak.”

Buruarekin ezetz egin diot, makurtu egin da bera, eskuakin kokotsa heldu nahi izan dit berari begira diezaiodan, baina tiraldi batez sakatu dut burua kuxinaren kontra.

“Ea Tommy, jar hadi zutik. Kontadak zer gertatzen den.”

Erdizka zutitu naiz, kuxina aurpegiaren aurrean, eta berriz ere neure burua aulkiaren gainean erortzen utzi dut itotako aienez beterik. Dijkstra andreak irri egin du.

“Ene, bai errukarria,” esan dit burlati. “Ene, bai ikaragarri errukarria. Gaixo mutikoa, oi gaixoa, ezin al haiz berriz zutitu?”.

Bi eskuak goratu ditut indarririk gabe. Heldu egin dizkit, eta tiraldi batez zutitu nau. Aulkiaren gainean nago orain zutik, bera bezain handi, eta ikusi egin dut betazalak gorrituta eta astun dituela.

“Hortxe haugu tente-tente!”.

Dir-dir egin diote kopetan izerdi tantatxo ezin finagoek. Haren arnasak amarenak bezalaxe usaintzen du ama urtebetetze-festa baten ondoren logela ilunean gainera makurtu eta ezkutuan irakurri ote dudak jakiteko ohe ondoko lanparatxoak ukitzen duenean.

“Ea, kontazak behingoz.”

Listua irentsi eta irentsi ari naiz, baina negar-zotinek badakite eztarritik ezarian alde egiten, eta marruka hasi naiz. Bere kontra estutu nau, lasaitzearekin batera ilea laztandu dit, eta, bat-batean, hitzak ere hasi zaizkit kanpora jariatzen, apurtutako esaldi toteletan. Zoriontasunean igeri egoteari buruzko hitzak, paisaiaren gainean hegan egiteari buruzkoak, tranpolin-jauzilari den gizonari begiratzeari buruzkoak, desagertuko den guztiari buruzkoak. Eddy eta Linde-ri buruzko hitzak, ordu pare bat barru etxean izango direnak, eta noski, planeagailu batean hegan egiteko aukera izan dutenak, eta jakina, bi horiek berriz ere beraien gotorlekua izango dute ezkutaleku, gerora bakar-bakarrik menderatu beharko dudana. Mutilekin borrokatzen naizenean beti puskatzen diren

betaurrekoei buruzko hitzak, amak hala nahi duelako berriz ere ezagun izango dudan judo-eskolari buruzkoak.

“Benetako judo-jantzirik ere ez dut! Eta berriz ere eroarena egin beharko dut gaur gauean, eta bihar, eta etzi...”

“Baina beharrezko al duk ba eroarena egitea?”

“Berez gertatzen da.”

“Zer gertatzen da berez?”

“Eroarena egitea!”

Barre-karkara garratz eta ozena egin du. Itsusiak eta zaratatsuak dira sukalondoan dauden txoriak. Masailak gorritu egin zaizkio, eta begietako kolore grisak indarra galdu du.

“Egin ezak eroarena, Tommy,” xuxurlatu du.

“Ez.”

“Elkarrekin egingo al dugu orduan?”

“Ez.”

“Zergatik ez? Badiat zinez eroarena egiteko gogo...”

“Ez!”

“Maite al dituzu marrubiak esne-gain irabiatuarekin?”

“Zer?”

“Ea marrubiak...”

“Ez!”

“Maite al nauzu?”

“Ez!”

“Ez al duzu inor maite?”

“Eeez!”

Indar guztiz egin dut orro, eta aulkiaren malgukiek kirrinka egin dute nire ostikada etengabeen eraginpean. Dijkstra anderea barrez lehertu da berriro ere. Hala ere, buruari heldu dio bat-batean, barrearen gehiegikeriak burua lehertzeko zorian jarri izan balio bezala, eta ia oreka galdu du.

“Jolas txiki bat egingo diagu,” esan du ozen. “Oihuka dezagun txandaka ezagutzen dugun hitzik itsusiena.”

Berehala mota guztietako irainak oihukatzen hasi da, ezin atseginagoa iruditu zait, eta handik gutxira oihu bizian hasi naiz neu ere, eta asma ditzakedan hitz eta irainik zikinenak bota ditut. Har zoroak janda daukagu burua. Denboratxo batera ezin dut gehiago, baina Dijkstra andreak bere horretan dihardu, bere burua berotu du arnasestuka bukatu duen arte. Lepondoan jarri dit eskua orduan, eta gogor estutu dit kopeta izerditsua sorbaldaren kontra. Berriz ere arnasa hartzeko gai

denean, honakoa xuxurlatu dit: “Badakik zer egiten saiatu behar duan gaur gauean, eta bihar, eta etzi?”.

“Zer?”.

“Oso adoretzu izaten...”

“Adoretsua,” errepikatu dut emeki.

“Bai,” xuxurlatu dit, “beldur haizela ahaztu... Horixe egiten diat neuk ere.”

Denbora luzean estutu nau konbultsiboki bere buruaren kontra. Bihotza entzuten diot taupaka, eta doi-doi ausartu naiz arnasten. “Gaur gauean nire etxean afalduko duk, hire amarekin batera. Sukaldean ari duk dagoeneko.”

“Zergatik zure etxean?” galdetu diot harri eta zur.

Dijkstra andereak ez dit esan nahi izan, libre utzi nau, urratsa egin du atzerantz irriño mingotsa ezpainenetan, eta dantza-pausoak egiten hasi da ahopean abestuz. Eskuineko besoa aurrean zuzen, eskua barnealderantz tolestua hatzak luze; ezkerreko besoa alde batera eramanda, eskua lore-kaliza baten moduan irekita.

“Ba al hator?”.

Ez naiz zirkinik egiteko gauza.

“Zergatik afalduko dugu zure etxean?”, setatu naiz.

“Horrela bakarrik afaldu behar ez dudalako, bihotza.”

“Eta Teun orduan?”.

Urrats txikiak herrestan eramanez ari da dantzan irratitxoan entzun dudan doinu bati jarraiki. Nire aldera dantza egiten duenean, konturatzen naiz begiak itxita dituela, negar malkoak irristatzen zaizkiola masailetan behera.

“Gogoan al dituzu...”, eztarria garbitu beharrean dago. “Gogoan al dituzu besoan eduki nituen orban gorriak?”.

“Bai.”

“Ulertzen al duzu orduan?”.

Semeak alde egin behar izan duela ulertu dut, baietz esan dut, baina ahotsak ez du soinurik sortu. Haren beso eta zangoei so nagoela, bat-batean, Dijkstra jauna irudikatu dut aurrean, zurezko bankuan etzanda, bidaiari batek lokarriak lotzen dizkion bitartean.

“Eta datorren astean, larunbatarekin, bisitan joan ahal naiz,” hots egiten du bat-batean haserre.

“Bai ederki! Puska batean basoan zehar paseatzen utziko didate harekin. Ederki! Logelan egon ahal naiz harekin. Ederki! Eta txirrinak jotzen duenean berriz ere alde egin behar... Tommy...”

Bi oinkada azkarrekin etorri zait ondora, aurrean dut, ezin gertuago, begi itxiekkin. Negar-zotinka beso-sorbaldak igurzten eta estutzen hasi zait eskuez...

Azkenik, lasaitua delarik, aldaketan pausatu dizkit eskuak. Sakon hartu dut arnasa, eta tentuz jarri dizkiot bi hatz erakusleak betile dardartien gainean, betazal hezeen gainean, eta gora jaso dizkiot, berak nirekin egin zuen bezalaxe elkarri lehen aldiz begiratu genionean. Hasperen eginez egin du irribarre, hats emanez uxatu ditu ileak berotutako aurpegitik, eta begietara begira geratu zait orduan begi gris distiratsuekin.

“Musutxo bat,” esan du.

Ahalik eta samurren eman diot musua ezpain zimurtuetan.

“Hasi al haiz berriz ere zertxobait ausart izaten?”.

“Zertxobait,” esan dut leun.

“Baita ni ere... Hator. Ez, hago.”

Hatzez atorraren sakelaxoa kolpekatu dit arin, era esanguratsuan. Bertatik atera ditut betaurrekoak, eta jantzi egin ditut.

Lipar batez baino ez diot Dijkstra anderearen orbanetz betetako eta erabat abaildutako aurpegiari begiratu, eta, bat-batean, daukadan adore apur horri, neure baitan sortzen nabaritu dudan borrokarako grina mingots horri, berealdiko bihotzaldia gaineratu zaio, ia izu-ikara eragiteraino: bizi ditudan bizipen horiengatik guztiengatik liluratuta egoteak sortzen didan sentimena. Eta sentimen horrek haize eman die nire oinei: airean joan naiz sukalandotik at.